

Gurutzada

Lehenik, Lurralde Santua musulmanen menpetik atera eta berriro kristauen eskuetartzeko Erdi Aroan Europako *kristandadetik egin zituzten espedizio militarrek adierazteko erabiltzen da hitz hori. Horietako zazpi zenbatu ohi dira: aurrena, 1095ean; azkena, 1270ean. Gurutzatuei horietan esku-harrerazteko *barkamenak edo indulgentziak eskaini ohi zizkien aita santuak. Alde guztietatik huts egin zuten gurutzadak beren helburuetan.

Garai berean Eliz hierarkiak onetsita eta onura izpiritualez hornituta, kristandarearen etsai erlijiozko-politikoak zapaltzeko antolatatu ohi ziren espedizioei edo jazarraldiei ere gurutzada izena ematen diete historigileek: e.b., albitarren kontrakoei, Espainiako mahometarren kontrakoei. Esanahi beretsuz, Eliza ofizialak gurutzadaren zentzua eman zion Espainiako azken gerra zibilarri, horrela errepublikaren kontra altxatuei euskarri ideologikoa eskainiz.

Gaur, berriz, fedea edo morala zaintzeko antolatatu ohi den zenbait kristau-mugimendu edo ekitaldi oldarkorri eman ohi diote gurutzada izena.

Gurutxadura

Kristau-arkitekturan, gurutzearen forma-ko *elizetan, *nabe nagusia eta besoak gurutzatzen direneko eremua.


Ik. Erlijiozko arkitektura; Basilika.

Gurutzea

Sinbolo behinenetako bat da gurutzea. Horregatik, hainbat tankera ezberdinez, kultura eta tradizio gehienetan aurki daiteke. Bereziki ezaguna da *lauburua (swastika) garai historikoen hasiera-hasieratik agertzen dena eta Euskal Herrian arrakasta berezia izan duena.

Tankera bakoitzak bere esanahi berezia ere eduki dezake, bigarren mailakoa. Baina funtsean, gurutzeak adiera kosmologiko eta antropologikoa ditu: munduaren dimentsio kontrakoa (zerua eta lurra, natura eta naturaz-gainekoa, etab.) eta gizakiaren elementu kontrakoa (bizia eta heriotza, garai-pena eta menperakuntza) lotzen dituen sinboloa da. Horregatik gurutzearen *sinboloak beti du direnen izaera dialektikoaren eta biziaren dramatismoaren esanahia.

Adiera horren hari berberetik dator kristau-gurutzea ere. Baina kristau-erlijioaren sinbolo nagusi bihurtu da bera, fun-datzailea, *Jesukristo, gurutzean hil zelako, eta heriotza horren bidez gizon-emakume guztientzat *salbamena ekarri duela kris-

Gurutze-mota ezberdinak

1. Latindarra; 2. Maltarra; 3. Aingura-itxurakoa; 4. Egiptiarra; 5. S. Andresena; 6. Gammaduna edo laubura; 7. Grekoa; 8. Aita santuarena; 9. Patriarkala; 10. Tau formakoa; 11. Lurralde Santukoa

tauek sinesten dutelako. Horregatik kristau-sinbolismoaren erdi-erdian dago gurutzea. Tankera askotara irudikatu dute, ordea, gurutzea kristau-historian; ezagunenak hauek dira: latindarra, maltarra, aingura-itxurakoa, egiptiarra edo ankh gurutzea, S. Andresena, gammaduna edo laburua, grekoa, aita santuarena, patriarkala, tau formakoa, Lurralde Santukoa edo Hilobi Santukoa.

Paulo Agirrebaltzategi

Gurutze santuaren egitea

Katolikoek zenbait lekutan gordetzen duten ohitura: Nork bere bekorian, ahoan eta bularrean gurutze-zeinu bana egitea, batzutan gurutzeko *eroskundera hitzez gogoratuz. "Gurutze santuaren" egitea esaten da, hain zuzen, formula hitz horrekin hasten delako. Gure artean, *mezakoa ebanjelioa irakurtzerakoan (eta entzuterakoan) egiten dute batez ere fededunek.

Gurutzea egitea

Sin.: Zeinaketa

Kristoren gurutzearen zeinua norbaiten edo zerbaiten gain egitea da. Zentzu ezberdinak ditu: ekiten zaion egintzaren bat sagaratzeko, *tentazioren bat aienatzeko, Jainkoaren *bedeinkapena erakartzeko, etab.

"Gurutze santuaren" egitea eta "aitaren" egitea dira gurutzearen seinalea egiteko tankera berezienak. Eliza katolikoan etengabe erabiltzen dute fededunek gurutzearen seinalea, bedeinkapenaren erakarle eta adierazle gisa.

Ik. Gurutzea.